

Hego Intxaurrondo

Bero-bero dator On Kaldero

'El Peli' auzoko umoregileak aurtengo jaietako pregoia irakurriko du eta berak botako du txupinazoa. Ondoren, hiru egunez, Kaldero Jaun izango da Hego Intxaurrondoko alkate.

Gladys Villalba
Kaldero Jaunaren erromeriarekin hasiko dira ostiralean, hilak 27, Hego Intxaurrondoko festak. Ohi legez, 18.00ak aldera, Sagastieder pasealekutik Ametzagainako iturrirantz abiatuko dira auzoko gazteak Kaldero Jaunaren bila. Kaldero Jaunari brusa jarriko dion auzotar taldeak, gainera, Jatorrenak txarangaren doinu alaiak izango ditu lagun. Ibilbide aldapsuak eragin dezakeen nekea

leuntzeko, pintxorik eta barrikoterik ez da faltako.

Aurten, Jose Luis Almuedo 'El Peli' auzokideak irakurriko du pregoia, 20.00etan. ETBko umore saio batean txistek eta pasadizo xelebreak kontatu ohi dituelako da ezaguna Jose Luis Almuedo intxaurrondotarra. Itxura denez, parodia umoretsu bat atondu du 'El Peli' atseginak egun berezi honetarako. Pregoa amaitu bezain pronto, auzoko jaiak hasiko dira, txupinazoarekin. Ondoren,

gauko 22.00etan, XI. Mus Txapelketa jokatu da Intxaurra elkartearen. Iluntze aldera, Kresala taldearen musikarekin gozatu ahal izango dute dantzaren maitale finenek.

Gorriti, klasikoa

Bezperako dantza-dantza "arrantzan" zorte handirik izan ez zuten nerabeek euren teknika hobetzeko aukera paregabea izango dute larunbatean, 10.00etatik aurrera, Intxaurra Elkartean Pasaia badiant antolatuta duen gazteentzako arrantza lehiaketan. Larunbat arratsaldean, bestalde, herri kirolen ikusgarritasuna miretsi ahal izango dugu. Barberena eta Mugerza aizkolarien arteko lehia interesgarriaz gain, Aimar Irigoien harrijasotzaile gaztearen erakustaldi ederra izango da eta. Eta, noski, aurten ere ez da Gorriti eta bere animalien show bitxia faltako. Gorriti



handiak, haurren aurpegiatar irria margotzeaz gain, oilarrekin gizakiekin baino errazagotz hitz egin daitekeela frogatuko digu beste behin.

Igande goizean, 11.00etatik aurrera, Extremadura Etxeko gastronomia eta artisautza produktuen erakusketa izango dugu. Ardo ona dastatzeko aukera ere izango da, jakina! Horrez gain, Virgen de Guadalupe taldeak bertako dantzak eskainiko ditu eguerdi partean, Sagastieder plazan. Gaur iristear dela, azkenik, Kaldero Jaunari herri epaiketa egingo zaio eta jaiak bukatuko dira. Datorren urtera arte, noski.



ALDAIA
taberna
Ikatz kalea 8

FEDERIKO
TABERNA
EGUNEZ ETA GAUEZ GIRORIK ONENA
FERMIN KALBETON 27

TTVN TTVN
TABERNA
San Jeronimo 25

Parte Zaharreko martxarik onena

TABERNA
5
konstituzio plaza

ALTXERRI
Erregina Erregenta, 2 • DONOSTIA



Hego Intxaurren

Egitaraua



Ostirala 27

17.00 Merkatu txikia, Sagastieder pasealekuan

18.00 Kaldero Jauna Ametzagaina muintotik auzora ekarriko dute

20.00 Jose Luis Almuedo 'El Peli'-k pregoia irakurriko du. Ondoren, herri poteoa egingo da. Jatorrenak txarangarekin, Kaldero Jaunarekin eta buruhandiek

20.15 Arrain frijitu jatea, Intxaurren elkartean

20.30 Trapu Zaharra taldearen

"Elvis ivete ya!" kale antzezlan

22.00 IX. Mus Txapelketa, Intxaurren elkartean. Dantzaldia Orquesta Kresala-rekin. Dantzaldian, mus txapelketako sariak banatuko dira

23.00 Zinema Gaztegunean (Valentzia plaza 1)

02.00 Zezensuzkoa

Larunbata 28

10.00 Diana. Trikitilariak auzoko kaleetan ibiliko dira.

Haurrentzako arrantza lehiaketa, Pasaia badi

11.00 Petanka txapelketa (ize-na Intxaurren zahar etxean eman behar da)

12.00 Merkatu txikia, Sagastieder pasealekuan. Herri poteoa eta kalejira Patxaranga txarangarekin. Areto futbol txapelketako finalak, Intxaurren Hegoa ikastetxean

14.00 Arrantza txapelketaren sari banaketa

17.00 Haurrentzako entzierroa betizu gurgildunekin, Busca Isusitik Sagastiedererraino

18.00 Uda danborrada. Herri kirolak

19.30 Gorriti Show-a: Gorritiren emanaldia poney, betizu eta bestelako animaliekin

20.30 Sardina jatea

23.00 Dantzaldia Orquesta Avenida-rekin

00.30 Zezensuzkoa. Ondoren, dantzaldiak jarraituko du

03.00 Zezensuzkoa

Igandea 29

10.00 Diana

11.00 Txu-Txu trenean auzoko kaleetan ibiltzeko aukera izango da. Extremadurako gastronomia eta produktu erakusketa

11.30 Haur jolasak, Intxaurren Hegoa ikastetxean

12.00 Meza hildako auzotarren alde, Andre Mari elizan

12.00 Intxaurren zahar etxeko jubilatuentzako pintxo jatea, Sagastieder pasealekuan. Extremadura Etxeko Virgen de Guadalupe taldearen musika eta dantza emanaldia

13.00 Irungo Meaka Dantza

taldearen emanaldia

14.00 Herri bazkaria

16.00 Haur jolasak Intxaurren Hegoa ikastetxean

16.00 Txu-txu tren

16.30 Toka eta bote txapelketa. Izena txosnan eman behar da, 15.00ak baino lehen (partaide bakojtzak bi euro ordaindu beharko ditu)

17.30 Haurrentzako entzierroa betizu gurgildunekin

18.00 Areto-dantza erakustaldia

19.30 Kukubiltxo taldearen "Mamutxoak" haur antzezlan

20.30 Jatorrenak txaranga eta buruhandiek auzoan ibiliko dira

21.30 Epaiketa Kaldero Jaunari

Gipuzkoako Filatelia Elkarrekin antolatuta, igandera bitartean, zigilu erakusketa ikusgai dugu Txara 1-ean. Ostiralean erakusketa: 18.00etatik 21.00etara egongo da zabalik eta larunbat eta igandean 11.00etatik 13.00etara eta 18.00etatik 21.00etara.



JOSE IGNACIO INCIARTE



Lorezaintza zentroa

Barneko eta kanpoko landareak eta lorezaintza

ORDUTEGIA

Astegunetan: 09.00etatik-13.00etara eta 15.00etatik-19.30era
Larunbatetan: 09.00etatik-13.00etara eta 16.30etik-19.30era
Igandetan: 10.00etatik-13.00etara

Otxoki pasealekua 68 • Tel.: 943 27 01 82



- Ikastetxe eta lantegientzako zerbitzu bereziak
- Era guztitako bidaiak, baita atzerrira ere
- Komuna eta literak dituzten autobusak

AVTOCARES

VLIAM

Tel.: 943 46 96 98
Tel.: 943 46 82 77